

PRENTSA OHARRA

STEE-EILAS Sindikatuak Haurreskolak Partzuergoko matrikulazio sistema aldatzeko beharra eta kuoten merkatzeko premia ikusten du.

Egun gizarteak pairatzen duen egoerak Haurreskoletan eragin zuzena izan du; familiak langabezian, EREtan, lan prekarioetan eta abarretan daude. Honen ondorioz, matrikulazioa nabarmen jaitsi da eta aurtengo ikasturtea aurrekoa baino 500 haur gutxiagorekin hasi dugu.

Stee-Eilas sindikatuak Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen duen zerbitzua garestia dela deritzogu. Jakin badakigu, une honetan haurreskola pribatu nahiz kontzertatu asko, (guztion diruarekin finantzatuak) publikoak baino merkeagoak direla. Beraz, haurreskolen doakotasuna aldarrikatzen dugu, hezkuntza sistemaren parte direlako eta Haur Hezkuntza 0-6 urte bitartean kontsideratua dagoelako.

Eusko Jaurlaritzak Haurreskolak Partzuergoaren sorreratik erakutsi duen ibilbidea ikusita doakotasunetik urrun gaudela uste dugu. Horregatik STEE-EILAS sindikatuak prezioak merkatzea eskatzen du bertara doazen familien errenta kontuan hartuz, egungo gizarteak nozitzen duen krisi egoera latzera egokitutako prezioak eskainiz.

Abenduak 9an Haurreskolak Partzuergoko Zuzendaritza Batzordea bilduko da eta bertako kideei eskaera zuzena egin diegu Stee-Eilas sindikatutik:

- Ikastetxeetan otsailean egiten den matrikulazio garai orokorrean haurreskolak partzuergoko urte beteko haurren geletan matrikulazio aldia zabaltzea. Honela haurreskola/ikastetxe pribatu eta kontzertatuekin alderatuta jasaten dugun desabantaila ekidingo genuke.
- Haurreskolak partzuergoko prezioak merkatzea gizarteak egun bizi duen egoerara egokituz.

Stee-Eilas sindikatuan, Haurreskolak Publikoak Doakoak eta Unibertsalak izateko lanean jarraitzen dugu.

ARABA

Eulogio Serdán, 5 (behea)
Tf: 945 14 11 04 Faxa: 945 14 43 02
araba@stee-eilas.org

BIZKAIA

Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)
Tf: 944 10 02 98 Faxa: 944 10 13 60
bizkaia@stee-eilas.org

GIPUZKOA

Baso-biki, 30-34 (atzealdea)
Tf: 943 46 60 00 Faxa: 943 45 36 27
gipuzkoa@stee-eilas.org

NAFARROA

Descalzos, 72 (behea)
Tf: 948 21 23 55 Fax: 948 22 97 90
nafarroa@stee-eilas.org

